

AMAIA VICENTE

# Paradise



ONGI ETORRI PARADISURA, 2013.  
Audioa: 2min eta 30 seg.  
Neon urdineko tuboa metakrilato gardeneko kutxan.

WELCOME TO PARADISE, 2013  
Audio: 2min 30sg  
Tubo de neón azul en caja de metacrilato transparente

## Paradisuak, dibidenduak eta odola.

FRANCISCO JAVIER SAN MARTÍN

Arizko Dorrean sartu, eta ehunka objektu ikusiko ditugu, edozelan jarrita. Urtebetetze-tartetan jartzen diren kandela horien antzekoak, edota bonboiz betetako erretiluak. Gehiago dirudi denda edo biltegia, erakusketa baino. Hurbildu ahala, ordea, ikusiko dugu ez direla ohiko kandela edota bonboiak, zerbait maltzurra gordetzen dutela: finantza-dibisa forma dute, baina ez monetarena, dibisaren logotipo gisa erabiltzen den ikur tipografiko espezifikoaena baizik. Artistak, kandelak pizteko eta bonboiak jateko gonbita egiten die ikusleei: kandela bat jarri ahal diogu Euro Deunari, edota Libera Esterlinari; yen edota errublo forma duten bonboiak dastatu ditzakegu. Baliteke, ordea, gonbidapen horren xedea ez izatea zerbait ospatzea, kontrakoa baizik: finantzen hozkeria moral horren ikurrei su ematea; milioika pertsoneri sufriarazten dieten ikur horiek suntsitzea; edota ikurrok irenstea, merkatuaren berezko jatuntasunari erantzun katartikoa ematearren. Kasu batean zein bestean —jaia ala katarsi suntsitzailea—, ikusleek logotipo kaltegarri horien inguruan batu, eta liturgia kolektibo batean hartuko dute parte.

Bidean aurrera egin, eta ehunka pieza txikiz eratutako itsaso batekin egingo dugu topo: aretoko zoluan barreiatutako moneta-ikur berberak dira. Halako batean, ikusiko dugu ez dela itsasoa, kontrakoa dela, hau da, lurra, herrialdeak, kontinenteak: mundu oso bat, diruaren oinarri geologikoaren gainean eraikia. Merkatuak menderatutako klima duten herrialde eta kontinenteak daude, non tenperatura igo eta jaitsi egiten den burtsako balioekin batera; non, itxura batean, aire-korronteek inbertsioen hegakortasunari jarraitzen dioten.

Eta, moneta-inbasio horren atzean, beste sinbolo indartsu bat —unibertsa eta eternala—: bandera, bi aldiz higitua. Erakusketa-aretoaren fondoko horman, sekulako oihal-jauzia, haizagailu bik eragindako haizearekin firin-faran, antzerkiko oihal erraldoi baten gisara. Erakusketa-eszenografia bailitzan aurkezten digu,

aberriaren antzerki moduko bat. Banderak higituak daudela diogu, kolorebakarrak direlako, kolorea galduta daukatelako, guztiak gris uniformizatzaile batera etorrita daudelako. Izan ere, kolorea da banderen ezaugarri behinena, haien izaera sinboliko eta eskusiboaren oinarria... Erakusketako banderak, gainera, elkarri josiak daude, aberrien patchwork erraldoia osatzen dute. Eta zerk definitzen du bandera bat, ezpada berezko izaera duela, isolatua, ordeztuzina dela, aberri baten ikurra dela? Elkarri josiak, kolorea galduta, bandera hauek ez dira jada inongo aberrikoak; akaso, mugak suntsitu dituen merkatuaren ondare globalaren parte dira. Merkatu horrek, mugak suntsitu ditu, bai, baina ez herrien arteko anaitasuna eraikitzeko, herriok berezko legitimazio mekanismoez modu eraginkorra goan menderatzeko baizik. Bide batez: elkarri jositako eta kolorea galdutako bandera-multzo horrek, Up & Down izenekoak, ez du nazioarteko komunitate osoa ordeztzen; heriotza-zigorra indarrean duten herrialdeak baino ez ditu biltzen.

Erakusketa hor amaitzen dela ematen du, baina, areto-tik irteterakoan, sartu garen atearen atalasean, neoi urdinezko errotulu erakaragarri bat, Welcome to Paradise leloarekin. Ez da hanka-sartzea: irteterakoan irakurtzeko dago hortxe jarrita, agur egiteko —zer dioen ikusita, kontraesana badirudi ere—. Errotulua erakusketaren izenburua da, ez du adierazten irtengo garen Ba-sauriko kalea paradisua denik. Aitzitik, artistak eskaini dizkigun bonboi horiek, argia ematen duten kandela horiek, anaitasunean jositako bandera horiek, paradisu fiskalak dira: atzerritarrentzat eta atzerriko enpresentzat mesedegarria den zerga-erregimena aplikatzen duten estatuak. Ezagutzen genuen Genesiko Paradisu (handik bortxaz kanporatu gintuzten). Ezagutzen genituen Baude-lairek, ardoaren eta haschischaren laguntzaz, irudikatu zituen paradisu artifizialak. Horiek aurkitzeko grinaz, edota horien galerak eragindako sentipenak bultzatuta, oso artelan ederrak sortu dira, mendeetan zehar. Ez genekiena zen paradisu fiskalak, munduko ekonomiaren zulo beltz moduko horiek, artea sortzeko inspirazio-iturri izan zitezkeenik.



Zerbait erre nahi duzu? 2014. 24H, 365D (III) lanetik.  
Pieza anitzen gainiko bideo-proiektzioa.  
Argizari naturalaz (erlez, parafinaz eta koloranteaz) egíniko piezak.

¿QUIERES QUEMAR ALGO?, 2014. De la serie 24H, 365D (III)  
Video proyección sobre número variable de piezas  
Piezas en cera natural de abejas, parafina y colorante




GORA ETA BEHERA, 2013  
Digitalki imprimaturiko oihala, 5m x 8m,  
bi haizagailu, bi tenporizadore.

UP & DOWN, 2013  
Tela impresa digitalmente, 5m x 8m,  
dos ventiladores, dos temporizadores

PARADISUA. 2014. 24H, 365D lanetik.  
Poliesterreko erretxina gardenaz eginiko eskultura anitzak,  
alfonbra urdin gainean.

PARADISE, 2014. De la serie 24H, 365D (V)  
Número variable de esculturas en resina de poliéster transparente  
sobre alfombra azul.




## Paraísos, dividendos y sangre.

FRANCISCO JAVIER SAN MARTÍN

Al entrar en la Torre Ariz nos encontramos con cientos de pequeños objetos en diferentes disposiciones. Un grupo de velas como las de las tartas de cumpleaños o bandejas repletas de bombones. Parece más una tienda o un almacén que una exposición, pero al aproximarnos descubrimos que no son velas o bombones corrientes, sino que esconden algo perverso: tienen forma de divisa financiera, no de las moneda en sí, sino de ese carácter tipográfico específico que funciona como logotipo de la divisa. La artista invita al público a encender las velas y comer los bombones, así que podemos “poner” una vela a San Euro o a Santa Libra Esterlina o regalar nuestro paladar con chocolate en forma de Yen o de Rublo. Pero quizás el sentido de esta invitación no sea celebratorio, sino más bien al contrario: incendiar esos símbolos de la frialdad moral de las finanzas, que hacen sufrir a tantos millones de personas, o devorarlos como contestación catártica a la propia voracidad del mercado. En cualquiera de los dos casos —fiesta o catarsis destructiva— esos logotipos maléficos congregan a los visitantes y los hacen participar de una liturgia colectiva.

Seguimos caminando y casi tropezamos con un auténtico mar de cientos de pequeñas piezas con los mismos símbolos monetarios extendidos desordenadamente por el pavimento de la sala, hasta que descubrimos que no es un mar, sino al contrario, tierras, países, continentes: un mundo entero construido sobre la base geológica del dinero, países y continentes cuyo clima se halla dominado por el mercado, cuya temperatura asciende o desciende al ritmo de los valores bursátiles, cuyas corrientes de aire parecen seguir la volatilidad de las inversiones.

Y como fondo a esta invasión monetaria, otro símbolo fuerte —universal y eterno—: la bandera, aunque doblemente degradado. Una imponente cascada de tela ondeando al viento de dos ventiladores preside la pared posterior de la sala de exposiciones como un gran telón de fondo teatral, caracterizando el conjunto



LIBERTÉ, EGALITÉ, PRÉCARIÉTÉ 2015. 24H, 365D (IV) lanetik.  
Bi bideo proiektzio, denbora errealean, txokolatez eginiko  
eskulturak pieza anitzekin beira-arasean.

LIBERTÉ, EGALITÉ, PRÉCARIÉTÉ, 2015. De la serie 24H, 365D (IV)  
Dos vídeo proyecciones, una a tiempo real, vitrina con  
esculturas en chocolate con número variable de piezas

de la exposición como un dispositivo escenográfico, una especie de teatro de la patria. Pero decimos degradada porque las banderas aparecen monocromas, desteñidas, reducidas a un gris que las uniformiza. ¿Y qué mejor define la bandera sino su color, su carácter simbólico exclusivo? Además se encuentran unidas, cosidas entre ellas como un inmenso patchwork de patrias. ¿Y qué mejor define una bandera que su carácter único, aislado, insustituible, símbolo de una patria singular? Cosidas entre sí y descoloridas, estas banderas no son ya de patria alguna, sino en todo caso patrimonio global del mercado que ha destruido las fronteras no para construir la fraternidad de los pueblos sino para someterlos de manera más eficaz a sus mecanismos de legitimación. Por cierto, ese gran friso de banderas cosidas y descoloridas, titulado *Up & Down*, no representa a la comunidad internacional, sino solo a países en los que la pena de muerte aún sigue vigente.

Parecía todo, pero al abandonar la sala, en el umbral de la puerta por la que entramos, nos sorprende un seductor rótulo de neón azul: *Welcome to Paradise*. No ha sido un despiste: está colocado para ser leído a la salida —paradójicamente, a pesar de su enunciado— como una forma de despedida. Es el título genérico de la exposición, y no, no insinúa que la calle de Basauri hacia la que nos encaminamos sea el paraíso, más bien al contrario, sino que esos bombones que la artista nos ha ofrecido, esas velas para iluminar, esas banderas fraternalmente unidas, se refieren a los llamados paraísos fiscales, los Estados que aplican un régimen impositivo especialmente favorable a ciudadanos y empresas no residentes en el territorio. Conocíamos el Paraíso del Génesis del que fuimos violentamente expulsados o los paraísos artificiales que Baudelaire imaginó con vino y haschisch. La búsqueda de ambos o el sentido de su pérdida han producido durante siglos obras de arte de milagrosa belleza, pero desconocíamos que los paraísos fiscales, esa especie de agujeros negros de la economía global, fueran también capaces de inspirar al arte.



Artista:  
Amaia Vicente García  
amaiavicente.com

Fotografía:  
Raquel Durán  
Pedro Kareaga

Diseño:  
Gerhard Wolf  
abart.at

amaiaaviciente.com

# 9216769

## TORRE DE ARIZ • ARIZKO DORRETxea

DEL 30 DE ENERO AL 22 DE FEBRERO DE 2015 / 2015eko URTARRILAREN 30tik OTSAILAREN 22ra



FRANTZISKO KORTABARRIA, S/N • TFNO. 944 666 426 • FAX 944 261 866 • 48970 BASAURI-BIZKAIA

**PRIMERA PLANTA / LEHENENGO SOLAIRUA**

**Ordutegia/Horario: 9:30h.-13:15h. / 16:30h.-20:15h.**

Larunbatetan, igandetan eta jaiegunetan/Sábados, domingos y festivos: 9:00h.-13:45h. / 16:30h.-20:15h.

